

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Zumaiako Udala**

**Ayuntamiento de Zumaia**

**2008**





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 UDALA .....	8
II.1.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	10
II.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK .....	11
II.2.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	11
II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	11
II.3 ZUMAIA LANTZEN, S.A. SOZIJETATE PUBLIKOA .....	12
II.3.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	12
II.3.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA .....	13
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	14
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA .....	14
III.2 SARRERA FISKALAK.....	14
III.3 LANGILERIA .....	15
III.4 KONTRATAZIOA .....	15
III.5 DIRU-LAGUNTZAK.....	17
III.6 SAN JUAN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA.....	18
IV. FINANTZEN ANALISIA.....	20
V. URTEKO KONTUAK.....	25
V.1 UDALA .....	25
V.2 SAN JUAN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA.....	28
V.3 MUSIKAREN UDAL PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOA .....	31
V.4 ZUMAIA LANTZEN, S.A. SOZIJETATE PUBLIKOA .....	33



<b>I. INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>35</b>
<b>II. OPINIÓN .....</b>	<b>36</b>
II.1 AYUNTAMIENTO .....	36
II.1.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD .....	36
II.1.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	38
II.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS .....	39
II.2.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD .....	39
II.2.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	39
II.3 SOCIEDAD PÚBLICA ZUMAIA LANTZEN, S.A. ....	40
II.3.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD .....	40
II.3.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	41
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>42</b>
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD .....	42
III.2 INGRESOS FISCALES .....	42
III.3 PERSONAL .....	43
III.4 CONTRATACIÓN .....	43
III.5 SUBVENCIONES .....	45
III.6 ORGANISMO AUTÓNOMO RESIDENCIA SAN JUAN .....	46
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>47</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>52</b>
V.1 AYUNTAMIENTO .....	52
V.2 ORGANISMO AUTÓNOMO RESIDENCIA SAN JUAN .....	55
V.3 ORGANISMO AUTÓNOMO PATRONATO MUNICIPAL DE MÚSICA.....	58
V.4 SOCIEDAD PÚBLICA ZUMAIA LANTZEN, S.A. ....	60
<b>ANEXOS .....</b>	<b>61</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	61
A.2 Presupuesto y Modificaciones presupuestarias .....	62
A.3 Impuestos, tasas y precios públicos.....	66
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones .....	68
A.5 Gastos de personal .....	69
A.6 Compra de bienes corriente y servicios .....	72
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas .....	74
A.8 Inversiones reales.....	75
A.9 Inmovilizado material, inmaterial y financiero y patrimonio en situaciones especiales .....	77



A.10	Variación de pasivos financieros.....	78
A.11	Deudores presupuestarios.....	78
A.12	Operaciones extrapresupuestarias.....	79
A.13	Tesorería.....	79
A.14	Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	80
A.15	Clasificación funcional del gasto .....	80
A.16	Contratación .....	81
A.17	Organismo Autónomo Residencia San Juan .....	83
A.18	Organismo Autónomo Patronato Municipal de Música .....	85
A.19	Sociedad Pública Zumaia Lantzen, S.A. ....	86
A.20	Información adicional .....	88
<b>ALEGAZIOAK .....</b>		<b>93</b>
<b>ALEGACIONES .....</b>		<b>99</b>

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azoaren 11a  
Vitoria-Gasteiz, 11 de noviembre de 2010



## I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), 1/1988 Legean —1988ko otsailaren 5ekoan— xedatutakoaren arabera, eta HKEEren osoko bilkurak 2009ko ekitaldirako onartutako lan egitasmoan ezarritakoari jarraituz, Zumaiako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Txosten honen alderdiak hauek dira:

- Legezketasuna: ea aurrekontuak, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileak, obren kontratazioa, erosketak eta zerbitzuak eta diru laguntzak emateko arloetan aplikagarri den araudia betetzen den aztertu da.
- Kontularitza: ea kontu orokorra bat datorren aplikagarri zaizkion kontabilitate printzipioekin egiaztatu da.  
«Zumaiia lantzen, SA» baltzu publikoaren kontuei dagokienez, gure lana izan da kanpoko enpresa batek eginiko auditoria txostena berrikustea, eta txosten horrek kontu-ikuskarien laneko paperak euskarri dituela egiaztatu dugu. Beharrezkotzat jo ditugunean, proba osagarriak edo bestelako auditoria prozedurak ere egin ditugu.
- Beste alderdi batzuk: lan honen irispidean ez dago sartuta gastuaren eraginkortasunari eta eragimenari buruzko azterketa espezifikoa, ez eta Udalaren, haren erakunde autonomoen eta haren baltzu publikoen kudeaketa prozedurei buruzkoa ere. Hala ere, fiskalizazioan sortutako alderdi partzialak txosten honetako III. epigrafean zehaztu dira.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Halaber, informazio gehigarria ematen duen eranskina ere sartu da. Eranskin horretan Udalaren antolakuntza alderdiak azaldu dira, hala nola, hainbat organoren osaera eta funtzionamendua, udalaren eta herritarren arteko informazio fluxuen analisia, zuzendaritza sistemak, gardentasuna eta garrantzitsutzat jo ditugun bestelako gai batzuk (ikus A.20).

Zumaiako Udalak 9.099 biztanle ditu, 2008ko urtarrilaren leheneko eroldaren arabera. Zumaiako Udalaren egituraren barruan daude «San Juan egoitza» eta «Musikako Udal Patronatua» izeneko udal erakunde autonomoak, eta oso-osorik Udalarena den «Zumaiia Lantzen, SA» baltzu publikoa.

2009ko ekainaren 25eko osoko bilkuran «Kiroletako Udal Patronatua» erakunde autonomo berria sortzea onartu zen, bai eta erakundearen estatutuak ere. Estatutuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO, aurrerantzean) argitaratu ziren 2009ko uztailaren 16an, lehendabizi, eta 2009ko urriaren 21ean argitaratu ziren gero, osorik.



## II. IRITZIA

### II.1 UDALA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

##### LANGILEAK

1. 2008-2010 aldirako Udaleko eta San Juan egoitza erakunde autonomoko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena (Udalbatzak 2008ko azaroaren 27an onartua) ez da argitaratu GAOn, nahiz eta hala egin behar dela xedatzen duen Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak —1989ko uztailaren 6koak— 102. artikuluan.
2. Udaleko lanpostuen zerrendan (Udalbatzak 2008ko martxoaren 26an onartua) ez da adierazi funtzionarioentzat gordetako lanpostuetarako esleituriko osagarri espezifikoak. Horrenbestez, ez da bete Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 15.2. artikuluan xedatutakoa.
3. 2008ko martxoaren 26ko osoko bilkuran onartu zen 2008ko ekitaldian atzeraeraginezko gehikuntza bat aplikatzea, lanpostuak balioztatzeke prozesuaren kontura, gehikuntzaren eragina 2008ko urtarrilaren lehenean hasita. Hitzartu zen, beste hainbat konpromisoren artean, balioztatzeke azken emaitzak aurreratutako diru kopurua baino txikiagoak zituzten langileei ez zitzaie eskatu ahal izango alde horiek itzul zitzaizkien. Horrek Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatu ez diren ordainsari kontzeptuengatik ordainketak egitea dakar. Txosten hau egin den egunean, ezin izan da zehaztu diru kopuru horien zenbatekoa, lanpostuak balioztatzeke prozesua ez delako bukatu.
4. Aldi baterako bi lan kontratu eta bi bitarteko funtzionario izendatzeko hautaketa prozesuetan ez dira bermatu funtzio publikorako sarbidea zuzentzen duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak; eta bitarteko funtzionario bat izendatzeko ez da hautaketa prozesurik egin. Horrenbestez, aipatutako batean ere ez da bete Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 33.1. artikulua (ikus A.5).

#### KONTRATAZIOA (ikus A.16)

5. Udalak 2008ko ekitaldian gastua egin du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginean (APKLTB, aurrerantzean) lege xedatutako prozedurarik erabili gabe. Aipatutako Testu Bategina 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak —2000ko ekainaren 16koak— onartu zuen, batetik; eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legeak —2007ko urriaren 30ekoak— (SPKL, aurrerantzean), bestetik, honako kontratu hauen indarraldia bukatu zenean:
  - Eguneko zentroko, erabilera anitzeko apartamentuetako eta etxez etxeko laguntzako zerbitzuak kudeatzeko kontratua aleko prezioetan esleitu zen 2004ko uztailaren 22an. Kontratu hori luzatu egin da mugaegunetik aurrera, beste kontratazio espediente bat esleitu arte. Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren aleko prezioa % 20 garestitu da. 2008ko urriaren 14tik (kontratua amaitu zenetik) 2008ko abenduaren 31ra bitartean egindako gastua 41.109 euro izan da.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Udal eraikinak garbitzeko zerbitzua kanpoko bi enpresari esleitu zitzairen 2001. eta 2002. urteetan, 81.309 euro eta 40.978 euroren zenbatekoan. Enpresa baten kontratua 2005eko ekainaren 30ean bukatu zen eta, bestearena, 2006ko maiatzaren 15ean. Hortaz, 2008ko ekitaldian 141.344 euroko gastua izan du batak, eta 150.438 eurokoa, besteak.
  - Ludoteka eta udaleku irekien kontratua —73.826 euroren zenbatekodun kontratua— 2003ko urtarrilaren 2an esleitu zen, eta 2006ko abenduaren 31n bukatu zen.
6. Zaborra jasotzeko eta bide publikoa garbitzeko zerbitzuen kudeaketak 423.412 euroko gauzatzea izan du 2008ko ekitaldian, eta indarrean dago txosten hau egin den egunean. Kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zen 2007ko urriaren 31n, 36.152 eurotan, eta hilabeteko iraupenarekin. Epe hori, hala ere, luzatzeko aukera zegoen, gehienez ere lehiaketa publikoa behin betiko esleitu arte edo zerbitzua Udala bera zuzenean ematen hasi arte. Hala izango zen, lehiaketaren prozedura orokorra salbuetsiko lukeen APKLTBko 159.2. artikuluan araututako kausetakorik agertzen ez bazen.
  7. Lorezaintza zerbitzua egiteko kontratua 2007ko ekitaldian esleitu zen, 183.302 eurotan. Kontratu horri zegozkion Administrazio Klausula Partikularren Pleguetan ez da betekizuntzat jarri lizitatzaileren sailkapena. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 25. artikuluan xedatutakoa.
  8. Udal arkitektoaren aholkularitza kontratua 1995eko irailaren lehenean esleitu zen. Urtez urte luzatu da, eta gainditu egin du kontrataziorako araudiak mota horretako kontratueterako ezarria duen denbora muga. 2008ko ekitaldian egindako gastua (21.057 euro) APKLTBn eta SPKLn legez ezarritako prozedurarik erabili gabe egin da.

Epaitegi honen iritziz, 1. paragrafotik 8.era bitartean xehatu diren ez betetzeak salbu, 2008ko ekitaldian Zumaiaiko Udalak arrazoizko eran bete du bere ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.



## II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2008ko ekitaldiaren Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren likidazio negatiboa 676.522 eurokoa izan da eta horren itzulketa Gipuzkoako Foru Aldundiari 2009 eta 2010eko ekitaldietan egingo da; horretarako, itunpeko zergen partaidetzatik konturako ordainketak proportzionalki murriztuko dira. Udalak likidazio negatiboa 2008ko ekitaldiaren sarrera txiki modura “Transferentzia arruntak” kapituluan kontuetaratu du eta zorra aurrekontuz kanpoko kontu hartzekodun batean erregistratu du.

1. Epaitegi honen irizpidearen arabera egin beharko liratekeen doiketek honako eragin hau izango dute diruzaintzako geldikin erabilgarrian, egoeraren balantzean eta funts propioetan, 2008ko abenduaren 31n:

Kontzeptua	Euroak, milakotan			
	Aurrekontuzkoak Diruzain. geldikina	Ondarezkua Aktiboa	Ondarezkua Pasiboa	Funts propioak
<b>Eskubide sortuak, 2008-12-31n erregistratu gabeak</b>				
A.3 Uraren errolda eta azpiegituren kanona, 2008ko 4. hiruhilekoan.....	237	237	-	237
A.3 Zaborren errolda, 2008ko 4. hiruhilekoan.....	121	121	-	121
A.4 GFA: 2008ko 4. hiruhilekoa, etxex etxeko laguntza .....	37	37	-	37
<b>Eskubide sortu gabeak, 2008-12-31n erregistratuak</b>				
A.3 Lursailen gainbalioak, behar ez bezala likidatuak .....	(107)	(107)	-	(107)
A.4 Kapital transferentziak; PERCO plana.....	(65)	(65)	-	(65)
A.4 Alondegia eraikinaren kapital transferentziak .....	(200)	-	-	-
<b>Eskubide sortuak, 2008-12-31n erregistratu gabeak</b>				
A.3 Uraren kudeaketa, 2008ko 4. hiruhilekoan.....	(68)	-	68	(68)
A.7 Urteta zabortegia ixteagatiko kanona .....	(255)	-	255	(255)
A.7 Narrondoko pasabidea egiteko lanak, Zumaia Lantzen, SA enpresak eginak	(804)	804	804	-
<b>Ondare kontabilitateko doiketak</b>				
A.11 Zuzkidura kaudimengabeentzat.....	-	293	-	293
<b>GUZTIRA</b>	<b>(1.104)</b>	<b>1.320</b>	<b>1.127</b>	<b>193</b>

Epaitegi honen iritziz, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena salbu, Zumaiako Udaleko kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, adierazten ditu 2008ko ekitaldiko ekonomia jarduera, ondarearen eta finantza egoeraren 2008ko abenduaren 31ko irudi doia, eta ekitaldian egin dituen eragiketen emaitzak.



## **II.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK: SAN JUAN EGOITZA ETA MUSIKAKO UDAL PATRONATUA**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **KONTRATAZIOA**

1. Musikako Udal Patronatua erakunde autonomoak musika irakasteko zerbitzuaren kudeaketa osoa esleitu zuen 2006ko irailaren 1ean, prozedura negoziatuaren bidez, publizitaterik gabe eta eskaintza bakarra eskatuta. Udalak 30.000 euroren ekarpena egin zuen emakidadunaren alde, 2007/2008 ikasturtean. Espedientean ez da behar bezala justifikatu APKLTBko 159.2 artikuluan araututako kausetakoren bat dagoenik (publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko aukera ematen dutenak, lehiaketako prozedura orokorra erabili ordez), ez eta hiru eskaintza edo gehiago eskatzeko ezintasuna ere. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 92. artikuluan xedatutakoa (ikus A.18).
2. 2008ko ekitaldian, San Juan egoitza erakunde autonomoan 117.007 euroko gastua egin da (erizaintza zerbitzuari dagokio gastua). Gastu hori esleitu da baina ez dira erabili APKLTBn eta SPKLAN legez xedatutako prozedurak (ikus A.17).

Epaitegi honen iritziz, 1. paragrafotik 2.era bitartean xehatu diren ez betetzeak salbu, 2008ko ekitaldian Musikako Udal Patronatua eta San Juan egoitza erakunde autonomoek arrazoizko eran bete dute beren ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritziz, Musikako Udal Patronatua eta San Juan egoitza erakunde autonomoen kontu orokorrak, alderdi esanguratsu guztietan, adierazten ditu 2008ko ekitaldiko ekonomia jarduera, ondarearen eta finantza egoeraren 2008ko abenduaren 31ko irudi doia, eta ekitaldian egin dituen eragiketen emaitzak.



## **II.3 ZUMAIA LANTZEN, SA BALTZU PUBLIKOA**

### **II.3.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **KONTRATAZIOA (ikus A.19)**

1. 2005eko irailaren 29ko Administrazio Kontseiluak Odieta arean zenbait jarduera egiteko obren zuzendaritza eta proiektuak egiteko zerbitzuak zuzenean esleitu zituen, administrazio kontratazioa arautzen duten publikitate eta lehia printzipioak bete gabe. Horrenbestez, ez zuen bete APKLTBko Seigarren Xedapen Gehigarria.

Kontratua 2006ko ekainaren 21ean egin zen legezko, 232.000 euroren zenbatekoarekin. Esleipena kanpoko bi sozietateri zegokien: exekuzioaren % 50, sozietate bati, zeinetan administratzaileetako batek zerbitzu harremana baitu Udalarekin; eta gainerako % 50a, lan kontratua zuen udal langile bati. 2008ko abenduaren 31n, gauzatutako zenbatekoa 140.879 euro zen. Bi kasuetan bateraezintasun funtzionala dago laguntza teknikoko kontratuaren esleipenarekin Udalean egindako lanen artean. Horren arrazoia da esleipendunek (udal arkitektoak) proiektuen berri eman behar zutela etorkizunean hirigintza lizentziak emateko, lanpostuko eginkizunak eta administrazio kontratukoak betez, hurrenez hurren.

2. 1992ko ekainaren 10eko Administrazio Kontseiluak baltzua kudeatu eta administratzeko zerbitzuaren kontratazio zuzena onartu zuen. Kontratazio hori hirigintza jarduera zehatz batzuk egiteko zen, eta hasierako kontratua egin eta gero zenbait zabaltze egin ziren. 2008ko ekitaldian 241.360 euroko gastua egin zen. Gastu hori administrazio kontratazioa zuzentzen duten publikitate eta lehia printzipioak bete gabe gauzatu zen.
3. 1. sektorean (Puntanueta II) hiru etxebizitza bloke egiteko obren zuzendaritza eta proiektuak idazteko kontratuaren lizitazioa 700.570 eurotan esleitu zen. Lizitazio hori ez zen argitaratu Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), ez eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) ere. Horrenbestez, ez zen bete APKLTBko 78. eta 203. artikuluetan xedatutakoa.

Epaitegi honen iritiz, 1. paragrafotik 3.era bitartean xehatu diren ez betetzeak salbu, 2008ko ekitaldian Zumaia Lantzen, SA baltzu publikoak arrazoizko eran bete du bere ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen lege araudia.



### II.3.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Zumaia Lantzen, SA baltzu publikoak kobratu beharreko 581.910 euroko kontu bat duela dago jasota 2008ko abenduaren 31ko bere egoeraren balantzean. Zenbateko hori murriztu zuen kaudimen gabeziatarako 136.800 euroko hornidurak, ADU-21 areako zenbait jabek ordaindu gabeko hirigintza gastuei dagokienak. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, 1999ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez, area Birpartzelatzeko Proiektua baliogabetu zuen, eta Auzitegi Gorenak, 2005eko otsailaren 8ko epaiaren bidez, Udalak ezarritako kasazio errekurtsioa gaitzetsi zuen. Alkatetzaren 2006ko apirilaren 6ko Dekretu bidez hasitako birpartzelatze ekonomikorako espedientea bukatzeke dago txosten hau egin den egunean. Horregatik, ezin da jakin zein den kanpoko baltzu bakoitzari eskagarri zaion zenbatekoa.

Epaitegi honen iritziz, lehenengo paragrafoan adierazitako ziurgabetasunak izan ditzakeen ondorioak salbu, Zumaia Lantzen, SA baltzu publikoaren urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, adierazten dituzte 2008ko ekitaldiko ekonomia jarduera, ondarearen eta finantza egoeraren 2008ko abenduaren 31ko irudi doia eta ekitaldian egin dituen eragiketen emaitzak.

### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera zuzentzen duten eta erakunde publikoetan kudeaketa hobetzeko ageriko egiten diren kontabilitateko printzipioetan (administrazio kontrataziokoak eta langileen kontrataziokoak) eragin nabarmenik ez duten kudeaketako alderdiak.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2008ko ekitaldirako aurrekontu orokorra, hasiera batean, 2008ko martxoaren 26ko Udaltzarak onartu zuen, eta GAOn argitaratu zen 2008ko apirilaren 7an. Data hartatik 15 egun baliadun igaro zirenean behin betiko onartu zen, ez baitzen egin inolako erreklamaziorik. Aipatutako aurrekontua GAOn argitaratu zen, 2008ko apirilaren 30ean. Aurrekontu orokorra behin betiko onartu behar da aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago, tresna erabilgarria eta eraginkorra izan dadin. Horixe xedatzen du 21/2003 Foru Arauak, 2003ko abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak (21/2003 Foru Araua, aurrerantzean), 15.2 artikuluan.
- Alkatetzaren 2008ko maiatzaren 28ko Dekretu bidez onartu zen kredituak txertatzeko espedienteak. Espediente horretan, Udalak oker erabili ditu, finantzaketa iturri gisa, «Kapital transferentziak» kapituluko diru sarreretako konpromisoak, 672.266 euroren zenbatekoa zutenak. Konpromiso horiek onartuta zeuden 2007ko abenduaren 31n, eta Diruzaintzako Geldikinaren zati ziren data hartan.
- Udalak «Transferentzia arruntak» kapituluan kontabilizatu du udalerriko hondartzetako zaintza, salbamendu eta sorospen zerbitzu kontratua dela eta 2008ko ekitaldian egindako gastua, 79.560 eurokoa. Hala ere, gastuaren izaera kontuan hartuta, «Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea» kapituluan erregistratu behar zen.
- Udalak ez ditu behar bezala kontabilizatu 2008ko ekitaldian gastuaren baimentzealdiak eta gastuaren erabilera, 21/2003 Foru Arauko 40. artikuluan xedatu bezala.

#### III.2 SARRERA FISKALAK

- Udalak, 2008ko ekitaldian, ez ditu GAOn argitaratu udal zergen erroldak jendaurrean jakinaraziko direla ohartarazteko iragarkiak. Horrenbestez, ez du bete 11/1989 Foru Arauak, 1989ko uztailaren 5ekoak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 16. artikuluan xedatutakoa.



### III.3 LANGILEAK

- Udalak ez du GAOn argitaratu 2007ko uztailaren 14ko osoko bilkuran hartutako erabakia, erabateko dedikazioa eskatzen duten karguei buruzkoa. Horrenbestez, ez du bete 7/1985 Legeak, 1985eko apirilaren 2koak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituenak, 75.5 artikuluan xedatutakoa.
- Udalak, 2003ko urriaren 30eko osoko bilkuran, onartu zuen talde politikoei diru hornidura bat esleitzea. Diru hornidura horrek osagai finkoa —talde guztientzat berdina— eta osagai aldakorra ditu. Osagai aldakorra honako hauen arabera zehazten da: kide kopuruaren arabera, taldeko bozeramaile izateagatiko esleipenen arabera eta udalbatzakideak Informazio Batzordearen, Udalbatzaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren bileretara etortzeagatiko esleipenen arabera. Horrenbestez, Udalak ez du bete Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 73.3 artikuluan xedatutakoa. 2008ko azaroaren 6ko osoko bilkuran hitzartu zen esleipen horiek zinegotziari edo talde politikoari ordaintzeko aukera. Kide anitzeko organoen bileretara benetan etortzeagatiko esleipenak (28.479 euro, 2008ko ekitaldian) udalbatzakideei ordaindu behar zaizkie. Eta Udalak hori jakinarazi behar dio Gipuzkoako Foru Ogasunari, zergak ordain ditzaten.

### III.4 KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

- **Administrazio Klausula Partikularren Pleguak**

Bost kontraturi dagozkien pleguetan (lau kontratu 1.330.453 eurotan esleitu dira, eta kontratu bat, zerbitzuen kudeaketarako kontratua, esleipendunak kontratua betetzearen arriskuak bere gain hartuta esleitu da) bildu dira, besteak beste, eskaintzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutako esleipen irizpideak, eskaintzen ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak jaso ordez. Horixe xedatzen dute APKLTBko 15. artikulua eta hurrengoek, bai eta SPKLko 65. artikulua eta hurrengoek ere.

Zerbitzu kontratu bat 183.302 eurotan esleitu zen. Kontratu horri dagokion pleguan kontratua luzatzeko aukera ezarri da, kontratua egin zenean ezarritakoa baino epe luzeagorako. Horrenbestez, ez du bete APKLTBko 198.1 artikuluan xedatutakoa (5. espedientea).

- **Proiektuaren zuinketa**

835.765 eurotan esleitutako obra kontratu batean, ez da proiektuaren zuinketa egin, nahiz eta zuinketa egin behar dela xedatzen duen SPKLko 110. artikulua (1. espedientea).



- **Jarduteko gaitasuna eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzea**

1.019.067 eurotan esleitutako bi espedientetan, ez da jaso esleipendunaren nortasun juridikoa egiaztatzen duen agiririk, ez eta haren ekonomia kaudimenaren, finantza kaudimenaren eta teknika edo lanbide kaudimenaren betekizunak justifikatzen dituen agiririk ere. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 79.2 artikuluan eta SPKLko 51. artikuluan xedatutakoa. Ez da jaso, orobat, esleipendunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen agiririk ere. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 79.2 artikuluan eta SPKLeko 135.4 artikuluan xedatutakoa (1. eta 5. espedienteak).

- **Kontratazio Mahaiaren aktak**

1.330.453 eurotan esleitutako lau kontratutan, alekako prezioka esleitutako kontratu batean eta esleipendunak kontratua betetzearen arriskuak bere gain hartuta esleitutako zerbitzuen kudeaketarako kontratu batean, Kontratazio Mahaiak ez ditu aktan legezko egin ez agiri juridikoen irekiera eta kalifikazioa, ez proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa ezta Kontratazio Mahaira helarazitako esleipen proposamena ere. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 88.1 artikuluan eta SPKLko 144. artikuluan xedatutakoa (1., 2., 3., 5., 6. eta 7. artikulua).

- **Baja ausartegia**

Lehiaketa bidez eta 148.514 eurotan esleitu den kontratu batean, esleipendunak ausarkeria presuntzioaren eraginpean dagoen proposamen ekonomiko bat aurkeztu du, pleguetan ezarritako mugen arabera. Ez da baja ausartegiaren espediente izapidetu eta, gainera, ez zaio esleipendunari eskatu behin betiko fidantza, % 20koa. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 86.4 artikuluan xedatutakoa (6. espediente).

- **Esleipena arrazoitzea**

Lehiaketa bidez eta 1.181.939 eurotan esleitutako hiru kontratutan, prezioaz bestelako esleipen irizpideetan (pleguetan jasotakoetan), emandako puntuazioak ez dira behar bezala justifikatu, eta esleipena ez dago nahiko arrazoitua. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 88.2 artikuluan eta SPKLko 144. artikuluan xedatutakoa (1., 5. eta 7. espedienteak).





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- **Behin-behineko esleipena**

835.765 eurotan esleitutako kontratu batean ez da egin behin-behineko esleipenik, nahiz eta hala egin behar dela xedatzen duen SPKLko 135. artikulua (1. espedienteak).

- **Esleipena argitaratzea**

1.330.453 eurotan esleitutako lau kontratutan, esleipena ez da argitaratu GAOn. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 93.2 artikulua eta SPKLko 138. artikulua xedatutakoa (1., 5., 6. eta 7. espedienteak).

- **Egikaritzea atzeratzea**

998.637 eurotan esleitutako bi kontratutan ez dira bete egikaritze epeak, eta ez dira jasota geratu egin diren epe luzapenen onespenuak. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 96. artikulua eta SPKLko 197. artikulua xedatutakoa (1. eta 7. espedienteak).

### III.5 DIRU LAGUNTZAK

- Udalak ez du diru laguntzen plan estrategikorik. Plan estrategiko horrek hainbat alderdi zehaztu behar ditu, besteak beste, plana aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak, helburu eta eragin horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa iturriak. Horrenbestez, ez da bete Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Legeko (2003ko azaroaren 17koa) 8. artikulua.
- Udalak diru laguntzen onuradunei ez die eskatzen akreditazio hau: zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duen akreditazioa, alegia. Horrenbestez, ez du betetzen Diru Laguntzei buruzko Legeko 14. artikulua xedatutakoa.
- Udalak 2008ko azaroaren 20an GAOn argitaratu zuen garabidean diren herrialdeetan programak finantzatzeko diru laguntzak emateko oinarriak behin-behinean onartu zirela jakinarazteko iragarkia. 2008ko ekitaldian 67.710 euroko egikaritzea izan zuen. Alegazioak egiteko epea ireki zen, baina ez zen jasota geratu eskabideak aurkezteko epea. Ez da argitaratu ez behin betiko onarpena ez eta oinarrien testu osoa ere. Horrenbestez, Diru Laguntzei buruzko Legeko 9.3 artikulua xedatutakoa urratu da. Hala ere, 2008ko abenduaren 31n aurkeztuta ziren eskabide guztiak onartu ziren.
- Udalak 2008ko ekitaldian kirol klubei beren ohiko jarduera egiteko lehiaketa prozeduraz emandako diru laguntzak (89.970 euro) arautzeko oinarriak ez dira argitaratu GAOn, nahiz eta argitaratu behar direla xedatzen duen Diru Laguntzei buruzko Legeko 9.3 artikulua.



- Kultura ekintzak egiteko, antolatzeke eta kirol klubetarako —babesteko eta aparteko jarduerak egiteko— emandako diru laguntzak, 2008ko ekitaldian, 77.461 euro, 24.000 euro eta 70.795 euro izan ziren, hurrenez hurren. Organo eskudunak, baina, ez ditu onartu diru laguntza horien oinarriak. Horrenbestez, ez da bete Diru Laguntzei buruzko Legeko 17. artikuluan xedatutakoa.
- Udalak ez du GAOn argitaratu lehiaketa prozeduraren bidez emandako diru laguntzen emakida ebazpenaren laburpena, eta ez du adierazi non dagoen ikusgai ebazpenaren eduki osoa. Diru laguntza bakoitzaren zenbatekoa 3.000 euro baino gehiago da. Horrenbestez, ez da bete Diru Laguntzei buruzko Legeko 18.2 artikuluan xedatutakoa.
- Udalak ez ditu legezko egin hitzarmenak, eta ez ditu sartu emakidaren ebazpenean auzoetako batzordeei jaiak egiteko emandako diru laguntzak (24.074 euro) arautu behar dituzten alderdiak, nahiz eta hala egin behar dela xedatzen duen Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren Araudiak (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa), 65. artikuluan. Gainera, diru laguntza horiek berariazkoak direnez, Udalaren Urteko Aurrekontuetan arauz jasota izan beharko lirateke.

### III.6 SAN JUAN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

#### Langileak

- Udalbatzak San Juan egoitza erakunde autonomoaren lanpostuen zerrendaren aldaketa onartu zen, 2008ko martxoaren 26an, baina aldaketa ez da GAOn argitaratu. Horrenbestez, ez da bete Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 16. artikuluan xedatutakoa.
- Lanpostuen zerrendan ez da sartu idazkari kudeatzailearen lanpostua, nahiz eta lanpostu hori erakunde autonomoaren estatutuetan ageri den. Lanpostu horretako eginkizunak lanpostuen zerrendako beste postu batean lan kontratu finkoarekin ari den langile batek egiten ditu, eta osagarri bat jasotzen du lan horren ordainetan. Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, lanpostuen zerrendan sartu behar dira aurrekontu hornidura duten lanpostu guztiak, eta lanpostu horiek Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 46. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera eman behar dira.
- San Juan egoitzak bitarteko lan kontratu bat du fiskalizazioa egin den egunean. Kontratu hori 2001eko abuztuaren 1ean sinatu zen lanpostu baterako, baina lanpostu horretan ez dago postu hori erreserbatuta duen titularrik. Horrenbestez, ez da bete 2720/1998 Errege Dekretuak, 1998ko abenduaren 18koak, Langileen Estatutuko 15. artikulua garatzen duenak (iraupen mugatuko kontratuei dagokienez), 4. artikuluan xedatutakoa.

### Kontratazioa (ikus A.17)

- Laguntza zerbitzuak kudeatzeko kontratua 2008ko ekitaldian esleitu zen, alekako prezioetan. Kontratu horretan honako huts hauek aurkitu dira:
  - Pleguetan bildu dira, besteak beste, eskaintzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutako esleipen irizpideak, eskaintzen ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak jaso orde. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 15. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa.
  - Esleipendunari ez zaio eskatu akreditaziorik, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela baieztatzen duenik, nahiz eta hala egin behar dela xedatzen duen APKLTBko 79.2 artikulua.
  - Kontratazio Mahaiak ez ditu aktan legezko egin ez agiri juridikoen irekiera eta kalifikazioa, ez proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa ezta Kontratazio Mahaira helarazitako esleipen proposamena ere. Horrenbestez, ez du bete APKLTBko 88.1 artikuluan xedatutakoa.
  - Pleguetan jasotako prezioaz bestelako esleipen irizpideetan, emandako puntuazioak ez dira behar bezala justifikatu, eta esleipena ez dago nahiko arrazoitua. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 88.2 artikuluan xedatutakoa.
  - Legezko egin den kontratuak iraupen jakin bat ezarri du, baina iraupen hori ez dator bat pleguetan ezarritakoarekin. Horrenbestez, ez da bete APKLTBko 49.5 artikuluan xedatutakoa.



#### IV. FINANTZEN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua. Konparazio ondorioetarako, 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko (geruza honetan baitago udala) Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalen batez bestekoen 2007ko ekitaldiari buruzko datuak barne hartu dira (eskuragarri dauden azken datuak).

	Milako eurotan						Biztanleko/euroan	
	Urtea			Urtea			_ Erreferentzia _	
	06(*)	07(*)	08	06(*)	07(*)	08	Gipuzk.	EAE
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.) .	4.462	4.468	4.491	505	498	494	555	524
Transferentzia arruntak (4. kap.) .....	5.280	5.742	5.600	598	639	615	693	717
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	274	340	432	31	38	47	19	39
<b>A. Diru-sarrera arruntak</b>	<b>10.016</b>	<b>10.550</b>	<b>10.523</b>	<b>1.134</b>	<b>1.175</b>	<b>1.156</b>	<b>1.267</b>	<b>1.280</b>
Langileria gastuak (1. kap.) .....	1.674	1.724	2.091	189	192	230	291	318
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	3.577	3.881	4.429	405	433	487	425	442
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.) .....	1.110	1.447	1.861	126	161	204	197	176
<b>B. Funtzionamendu gastuak</b>	<b>6.361</b>	<b>7.052</b>	<b>8.381</b>	<b>720</b>	<b>786</b>	<b>921</b>	<b>913</b>	<b>936</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>3.655</b>	<b>3.498</b>	<b>2.142</b>	<b>414</b>	<b>389</b>	<b>235</b>	<b>354</b>	<b>344</b>
- Finantza gastuak (kap. 3) .....	16	12	7	2	1	-	15	12
<b>Emaitza arrunta .....</b>	<b>3.639</b>	<b>3.486</b>	<b>2.135</b>	<b>412</b>	<b>388</b>	<b>235</b>	<b>339</b>	<b>332</b>
- Maileguen amortizazioa (kap. 9) .....	257	172	90	29	19	10	47	34
<b>Aurrezki garbia .....</b>	<b>3.382</b>	<b>3.314</b>	<b>2.045</b>	<b>383</b>	<b>369</b>	<b>225</b>	<b>292</b>	<b>298</b>
Inbertsioen besterentzea (6. kap.) .....	183	-	-	21	-	-	129	147
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	289	1.521	33	33	170	3	145	151
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	(3.009)	(2.646)	(2.370)	(341)	(295)	(260)	(473)	(483)
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.) .....	(365)	(780)	(737)	(41)	(87)	(81)	(60)	(28)
<b>Kapital eragiketen emaitza .....</b>	<b>(2.902)</b>	<b>(1.905)</b>	<b>(3.074)</b>	<b>(328)</b>	<b>(212)</b>	<b>(338)</b>	<b>(259)</b>	<b>(213)</b>
<b>Diruzaintza geldikina 12.31n .....</b>	<b>6.020</b>	<b>7.691</b>	<b>6.517</b>	<b>681</b>	<b>857</b>	<b>716</b>	<b>462</b>	<b>549</b>
<b>Zorpetzea 12/31n .....</b>	<b>338</b>	<b>166</b>	<b>76</b>	<b>38</b>	<b>19</b>	<b>8</b>	<b>393</b>	<b>300</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

OHARRA: "Gipuzk." eta "EAE" erreferentziak, 5.000 eta 10.000 biztanle bitartean dituzten Gipuzkoako udalen datuei dagozkie (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko HKEEren 2007ko txostena).



**Sarrera arruntak:** ez zuten aldaketarik izan 2008an, eta % 5 gehitu ziren 2007an, aurreko ekitaldietako bakoitzarekin alderatuta. Hauek izan dira aldakuntza nagusiak:

- **Zuzeneko eta zeharkako zergak, tasak eta bestelako sarrerak:** Sarrera horiek ez dute aldaketarik izan aztertutako aldian. Hona hemen askotariko kontzeptuetan izan diren aldakuntza adierazgarrienak:

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergak (EIOZ) % 15 eta % 46 arteko murrizketa izan du 2008ko eta 2007ko ekitaldietan, hurrenez hurren. Sarreraren kontzeptu horrek lotura du udalerrian izandako eraikuntza jarduerarekin eta, beraz, hegazkortasun maila handia du.

Tasak eta bestelako sarrerak % 10 gehitu dira aztertutako aldian. Nabarmentzekoa da 2008ko ekitaldian onartutako sarrerak izan duten gehikuntza; zabor bilketagatiko tasak % 39ko gehikuntza izan du 2008ko ekitaldian, funtsean ekitaldi horretan onartutako tarifa % 50 gehitu izanaren ondorioz.

- **Transferentziak eta diru laguntza arruntak:** sarrera horiek % 2 murriztu dira 2008ko ekitaldian, eta % 9 gehitu ziren 2007ko ekitaldian. Gorabehera horiek sarrera onartuetan izan diren aldakuntzek justifikatzen dituzte. Aldakuntza horiek 4.838.223 euro, 5.282.177 euro eta 5.037.421 euroren zenbatekoa izan dute 2006ko, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan, hurrenez hurren, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren atalean.
- **Ondare sarrerak:** % 27 eta % 24 gehitu dira 2008ko eta 2007ko ekitaldietan, hurrenez hurren, funtsean, aldi baterako finantza inbertsioen bidez diruzaintzako geldikinetatik errentagarritasun handiagoa lortu delako.

**Funtzionamendu gastuak:** % 19 egin zuten gora 2008an, eta % 11 gehitu ziren 2007an, aurreko ekitaldietako bakoitzari dagokionez. Hauek izan dira aldakuntza nagusiak:

- **Langileria gastuak:** % 21 egin zuten gora 2008ko ekitaldian, eta % 3 gehitu ziren 2007ko ekitaldian. 2008ko gehikuntza honako hauek justifikatzen dute, funtsean: alde batetik, 2008ko martxoaren 26ko osoko bilkuran lanpostuen zerrenda balioztatze prozesua hasteko hartutako konpromisoek (eragina 2008ko urtarrilaren 1az geroztik izango zutenak); eta, bestetik, 2008ko ekitaldian prozesu horren azken emaitzaren konturako igoera bat ordaindu izanak (langile bakoitzari esleituta zuen Udalhitz maila baino maila bat edo bi goragoko ordainsaria eman zitzaion). Gainera, 2008ko ekitaldian, ordainsarien % 4,2ko igoera onartu zen, gehi % 1 lineala, soldata masa osoari dagokionez.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak:** % 14 egin zuten gora 2008ko ekitaldian, eta % 8 gehitu ziren 2007ko ekitaldian. Nabarmentzekoa da «Kanpoko enpresek egindako lanak» kontzeptu ekonomikoak 2008ko ekitaldian izandako gehikuntza, % 26koa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Igoera horren arrazoia, funtsean, orduak eta zerbitzuak gehitu izana izan da lorezaintza kontratuetan, etxez etxeko laguntzako kontratuetan eta udal eraikinak garbitzeko kontratuetan. Halaber, aipatutako gehikuntza eragin du 2008ko ekitaldian laguntza teknikoko kontratu berriak esleitu izanak, hala nola, Udal Artxiboaren kudeaketa, berdintasunaren gaineko azterketa, parte hartezko



aurrekontuen analisia, komunikazio planaren diseinua eta egikaritzea eta 2008-2011 aldirako legegintzaldi plana.

- **Transferentziak eta diru laguntza arruntak:** % 29 egin zuten gora 2008ko ekitaldian, eta % 30 gehitu ziren 2007ko ekitaldian. Aipagarria da Urola Kostako Mankomunitateari egindako transferentzien gehikuntza. Gehikuntza hori eragin du gastu arruntari egozgarri zaizkion obligazioek, 160.306 eurotan eta 225.126 eurotan kontabilizatuak, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan, hurrenez hurren, alderdiek, Urtetako zaborteziaren itxierari, zigilatzeari eta haren etorkizuneko mantentze lanei aurre egiteko helburuarekin, 2007ko maiatzaren 15ean sinatutako hitzarmenaren arabera. Gainera, 2008ko ekitaldian, Udalak 146.887 euroko transferentzia bat egin dio San Juan egoitza erakunde autonomoari, kanpoko enpresei azpikontraturiko laguntza eta erizaintza zerbitzuetan gastua gehitu dela eta.

**Aurrezki gordina:** nabarmentzekoa da % 39 murriztu dela 2008an, 2007ko datuekin alderatuta, funtzionamendu gastuen gehikuntza handiagoa izan delako sarrera arruntak baino.

**Aurrezki garbia:** finantza zama ordaindu eta gero erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren zatia da (interesak eta maileguen amortizazioa), eta Udalak, baliabide arruntekin, inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna adierazten du. Finantza zama % 64 murriztu da aztertutako aldian, aldi horretan hainbat mailegu bukatu delako; 2008ko abenduaren 31n, ekitaldian likidatutako sarrera arruntan % 0,9 ziren maileguak. Hala ere, aurrezki garbia % 38 murriztu da 2008ko ekitaldian aurreko ekitaldiarekin alderatuz, eta, horrenbestez, aurreko ekitaldietan ez bezala, ez da nahikoa izan kapital eragiketen emaitza osoa finantzatzeko.

**Kapital eragiketen emaitza:** Inbertsio garbiak emaitza negatiboa izan du; 2.902.383 euroren, 1.904.461 euroren eta 3.074.676 euroren zenbatekoa, 2006ko, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan, hurrenez hurren. Honako hauek dira ekitaldi horietan izandako eragiketa nagusiak:

- **Jasotako kapital transferentziak:** Nabarmentzekoak dira 2007ko ekitaldian onartutako sarrerak, 1.521.472 euroko sarrerak. Sarrera horiek hainbat diru laguntza lerrotatik etorri dira, besteak beste: Izartu programatik, 472.266 euro; eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntza bat, 500.000 eurokoa, artxiboko dorreko obrak egiteko.
- **Inbertsio errealengatiko gastuak:** aurrekontuko kapitulu horretan egindako gastua % 21 murriztu da aztertutako aldian. 2006ko eta 2007ko ekitaldietan nabarmentzekoa da udaletxearen zaharberritzea; 1.753.347 euro eta 1.441.155 euroko gastua egin da bi ekitaldi horietan, hurrenez hurren. Zaharberritze lanak 2008ko ekitaldian bukatu dira.

- **Emandako kapital transferentziak:** Aipatzekoak dira Zumaia Lantzen, SA baltzu publikoari egindako transferentziak, Udalak agindutako eta Izartu programaren barruan sartutako obrak finantzatzeko. 216.365 euro, 660.466 euro eta 675.899 euroko transferentziak egin dira 2006ko, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan, hurrenez hurren.

**Zorpetzea:** aztertutako aldian, zorpetze maila % 77 murriztu da, lehendik dauden maileguak amortizatu direlako eta berririk itundu ez delako. Hala ere, Zumaia Lantzen, SA baltzu publikoari lotzen bagatzaizkio, kontuan izan behar da 2008ko ekitaldian magnitude horrek gehikuntza handia izan duela; hain zuzen, % 124koa.

**Diruzaintzako geldikina:** aztertutako aldian, magnitude horrek aldakuntza izan du; % 8ko gehikuntza izan du 2006ko ekitaldiarekin alderatuta, baina % 15 murriztu da 2007ko ekitaldiko datuen aldean. Murrizketa horren eragile izan ziren aurrezki garbiaren murrizketa esanguratsua eta 2008ko ekitaldian kapital diru laguntzengatiko sarrerarik ez izana. Horren ondorioz, kapital eragiketen % 33 finantzatzeko ekitaldiaren hasieran erabilgarri zegoen diruzaintzako geldikina erabili behar izan da. Gainera, epaimahai honek proposaturiko doiketak aintzat hartzen badira, 2007ko datuekin alderatuta % 30eko murrizketa izango zen, eta % 10ekoa, 2006ko datuen aldean. Itunpeko zergetan parte hartzeagatiko likidazio negatiboa, Gipuzkoako Foru Aldundiari 2009 eta 2010eko ekitaldietan itzuliko zaiona, jada 2008ko ekitaldiaren diru-sarrera txiki modura kontuetaratu dela esan behar da, 676.522 euroko zenbatekoarekin; honenbestez, Udalak gauzatutako Diruzaintza Geldikinaren kalkuluan hori jada jaso dago.

**Ratioak biztanleka:** informazio gisa 2007. urteari dagozkion datuak aurkeztu ditugu, 5.000 eta 10.000 biztanle artean duten Gipuzkoako eta EAeko udalen batez bestekoaren ingurukoak. Udaleko datuekin alderaketa egin ahal izateko, kontuan izan behar dira zerbitzuak ematean izaten diren aldeak. Izan ere, batzuetan zuzenean ematen dira udal administratziotik bertatik, eta besteetan erakunde autonomoetatik, merkataritzako sozietate publikoetatik edo zuzenean mankomunitateen, partzuergoen edo bestelako merkataritzako sozietateen bitartez.

**Ondorioa:** Hona hemen udal Administrazioek gauzatzen dituzten inbertsioak finantzatzeko iturri posibleak: ekitaldi bakoitzean sortzeko gai izango diren aurrezki garbia, diruzaintzako geldikinak, eta diru laguntzen edo zorpetze berriaren bidez lortuko duten kanpo finantzaketa. Aztertutako aldian, Zumaiako Udalak aurrezki garbi positiboa izan du, eta oso zorpetze maila baxua, udalerrri horren biztanleria mailako udalen batez bestekoarekin alderatuta. Dena den, nabarmentzekoa da 2008ko ekitaldian aurrezki garbiak izan duen murrizketa. Horren ondorioz, 2008ko ekitaldian sortutako aurrezki garbia ez da nahikoa izan kapital eragiketarako finantzatzeko. Aurreko ekitaldietan, ordea, ez da halakorik gertatu.



Nahiz eta diruzaintzako geldikina nahikoa izan zitekeen aurreikusitako inbertsioak egiteko, udalak etorkizunean inbertsioak egiteko izango duen ahalmena aparteko baliabideak lortzeak baldintzatuko du. Alde horretatik, 2009ko aurrekontuan aztertu da etorkizunean 2.419.694 euroko mailegu bat erabiltzea, ekitaldiko inbertsioak finantzatzeko.

2009ko ekitaldiko aurrekontuan, 234.980 euroko aurrezki garbia aurreikusi da, Udalak berregituratze politikarekin aurrera darraielako «Langileria gastuak» eta «Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak» kapituluetan. Baldin aurreikuspen horiek beteko balira, eta gaur egungo ekonomia egoera kontuan hartuta, gomendagarri litzateke izandako gastu arruntaren gehikuntza murriztu eta kontrolatzeko neurriak hartzea. Izan ere, gastu arruntaren gehikuntzak goranzko joera izateak behar lezake gastu arrunta diruzaintzako geldikinak zordunduz finantzatzera, eta horrek inbertsioak egiteko gaitasuna bermatuko luke.





## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 UDALA

#### 2008-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Mila euro

SARRERAK	ERANSKINA	AURREKONTUA				ESKUBIDE.		KOBRA.	GABEA	%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBRA.	EXEK.			
1. Zerga zuzenak .....	A.3	2.160	-	2.160	2.335	2.117	218	108		
2. Zeharkako zergak .....	A.3	600	-	600	337	328	9	56		
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	1.565	-	1.565	1.819	1.720	99	116		
4. Transferentzia arruntak .....	A.4	6.114	12	6.126	5.600	5.429	171	91		
5. Ondare sarrerak .....	A.12	150	-	150	432	416	16	288		
6. Inbertsio errealen besterentzea .....		846	-	846	-	-	-	-		
7. Kapitalezko transferentziak .....	A.4	298	672	970	33	25	8	3		
8. Finantza aktiboak .....		18	3.523	3.541	-	-	-	(*)-		
9. Finantza pasiboak .....		2.017	-	2.017	-	-	-	-		
<b>GUZTIRA</b>		<b>13.768</b>	<b>4.207</b>	<b>17.975</b>	<b>10.556</b>	<b>10.035</b>	<b>521</b>	<b>(*)73</b>		

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikinarekin finantzatutako aurrekontu aldaketen eragina zuzendu da.

Mila euro

GASTUAK	ERANSKINA	AURREKONTUA				OBLIG.		ORDAIN.		%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.		
1. Langileen gastuak .....	A.5	2.241	-	2.241	2.091	2.090	1	93		
2. Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	A.6	4.879	108	4.987	4.429	3.520	909	89		
3. Finantza gastuak .....	A.10	9	-	9	7	7	-	90		
4. Transferentzia arruntak .....	A.7	2.152	(35)	2.117	1.861	1.424	437	88		
6. Inbertsio errealak .....	A.8	3.853	3.345	7.198	2.370	1.631	739	33		
7. Kapitalezko transferentziak .....	A.7	526	789	1.315	737	470	267	56		
8. Finantza aktiboak .....		18	-	18	-	-	-	-		
9. Finantza pasiboak .....	A.10	90	-	90	90	90	-	100		
<b>GUZTIRA</b>		<b>13.768</b>	<b>4.207</b>	<b>17.975</b>	<b>11.585</b>	<b>9.232</b>	<b>2.353</b>	<b>64</b>		

#### AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	ZORRA	HASIER.		KOBRA./	AZKEN
		BALIOG.	ORDAIN.		
Zordunak .....	A.11	3.144	159	1.771	1.214
Hartzekodunak .....		1.323	-	1.323	-
<b>AURREKONTU ITXIAK</b>			<b>(159)</b>		



AURREKONTUAREN EMAITZA 2008		Mila euro
Eskubide kitatuak.....		10.556
Obligazio aitortuak.....		(11.585)
<b>AURREKONTU ARRUNTEKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(1.029)</b>
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETEN EMAITZA</b>		<b>(159)</b>
<b>EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA</b>		<b>(1.188)</b>
Finantziario-desbideraketak .....		-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....		1.335
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>147</b>

DIRUZAINZA GELDIKINA 2008		Mila euro
Diruzaintza geldikina 08.1.1ean .....		7.691
Aurrekontuaren emaitza .....		(1.188)
Kaudimengab. horniduren aldakuntza.....		22
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunen bariazioa.....		(8)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 08.12.31-N</b>		<b>6.517</b>
Diruzaintza (A.13) .....		5.746
Aurrekontuko zordunak .....		1.735
Aurrekontuz kanpoko zordunak (A.12) .....		2.750
Aurrekontuko hartzekodunak .....		(2.353)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak (A.12) .....		(934)
Sarrerak itzultzeagatiko hartzekodunak.....		(18)
Kaudimengabeziatarako hornidurak (A.11) .....		(409)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 086.12.31-N</b>		<b>6.517</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza geldikina .....		-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA</b>		<b>6.517</b>

<b>08.12.31-N ZORPETZEA (A.10)</b>	<b>76</b>
------------------------------------	-----------

KONPROMISO KREDITUAK		Mila euro		
KONTZEPTUA	2009	2010	GUZTIRA	
Alondegiko proiektua.....	1.040	1.749	2.789	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.040</b>	<b>1.749</b>	<b>2.789</b>	



EGOERAREN BALANTZEA 2007 ETA 2008-KO ABENDUAREN 31-N

Mila euro

AKTIBOA	ERANSKINA	31.12.08	31.12.07	PASIBOA	ERANSKINA	31.12.08	31.12.07
<b>IBILGETUA</b>	<b>A.9</b>	<b>22.566</b>	<b>21.678</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>		<b>28.714</b>	<b>29.203</b>
Erabilera orokorrekoa.....		182	374	Ondarea.....		7.459	7.459
Ibilgetu ezmateriala.....		547	351	Atxikitako ondarea.....	A.9	(1.853)	(1.853)
Ibilgetu materiala.....		19.539	18.655	Erabil. Orokor. emandako ondarea....	A.9	(13.474)	(12.794)
Ibilgetu finantzarioa.....		2.298	2.298	Ekitaldi itxien ondorioak.....		36.391	32.547
				Galera-Irabaziak.....		191	3.844
<b>ZORDUNAK</b>		<b>1.048</b>	<b>2.756</b>				
Aurrekontuzkoak.....	A.11	1.735	3.145	<b>HARTZEKODUNAK, EPE LUZERA</b>		<b>29</b>	<b>18</b>
Askotariko zordunak.....	A.12	7	6	Finantza erakundeekiko zorrak.....		-	(12)
Entitate publiko zordunak.....	A.12	8	36	Bermeak eta gordailuak.....	A.12	29	30
-Kaudimengab. zuzkid. ....	A.11	(702)	(431)				
				<b>HARTZEKODUNAK, EPE LABUR.</b>		<b>3.352</b>	<b>1.694</b>
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>8.481</b>	<b>6.481</b>	Aurrekontuko hartzekodunak.....		2.353	1.323
Denbor. finant. inberts.....	A.12	2.735	120	BEZarengatik hartzek.....	A.12	7	8
Diruzaintza.....	A.13	5.746	6.361	Sarreren itzuleragatik hartzek.....		18	10
				Entitate publiko hartzekodunak.....	A.12	165	133
				Bestel. hartzekodun ez aurrek.....	A.12	677	-
				Finantza erakundeekiko zorrak.....	A.10	76	178
				Bermeak eta gordailuak.....	A.12	56	42
<b>AKTIBOA</b>		<b>32.095</b>	<b>30.915</b>	<b>PASIBOA</b>		<b>32.095</b>	<b>30.915</b>

2007 ETA 2008-KO EKITALDIEN GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Mila euro

GASTUAK	08 URTEA	07 URTEA	DIRU-SARRERAK	08 URTEA	07 URTEA
Langileen gastuak.....	2.100	1.734	Negozio zifratik zenbateko garbia	1.466	1.288
Kanpoko zerbitzuak.....	4.487	3.914	Zerga zuzenak.....	2.335	2.433
Emand. transf. eta dirulag.....	2.598	2.228	Zeharkako zergak.....	337	398
Amortizaziorako zuzkidura.....	733	601	Jasotako transf. eta dirul.....	5.633	7.277
Horniduren aldaketak.....	271	181	Bestel. kudeaketa sarrerak.....	450	438
<b>USTIAKETA MOZKINAK</b>	<b>32</b>	<b>3.176</b>			
Finantza gastua.....	8	12	Sarrera finantzarioak.....	326	248
<b>FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK</b>	<b>318</b>	<b>236</b>			
Ekitaldi itxien gtu.-galerak.....	159	37	Ekitaldi itxien sarr. eta mozkinak.....	-	469
<b>AURREK. ITXIEN EMAITZA POSIT.</b>	<b>-</b>	<b>432</b>	<b>EKIT. ITXIEN EMAITZA NEGATIBOAK</b>	<b>159</b>	<b>-</b>
<b>EKITALDIAREN MOZKINAK</b>	<b>191</b>	<b>3.844</b>			



## V.2 SAN JUAN EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

### 2008-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Mila euro

SARRERAK	___ AURREKONTUA ___				ESKUBIDE.		KOBR.	%
	HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	KITAT.	KOBR.	GABEA	EXEK.	
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	476	-	476	545	545	-	114	
4. Transferentzia arruntak .....	1.069	-	1.069	957	668	289	90	
5. Ondare sarrerak .....	-	-	-	14	14	-	-	
8. Finantza aktiboak .....	-	43	43	-	-	-	(*) -	
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.545</b>	<b>43</b>	<b>1.588</b>	<b>1.516</b>	<b>1.227</b>	<b>289</b>	<b>(*)98</b>	

(\*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikinarekin finantzatutako aurrekontu aldaketen eragina zuzendu da.

Mila euro

GASTUAK	ERANSKINA	___ AURREKONTUA ___			OBLIG.		ORDAIN.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.-BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.
1. Langileen gastuak .....	A.17	130	-	130	124	124	-	96
2. Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak .....		1.415	-	1.415	1.347	1.124	223	95
6. Inbertsio errealak .....		-	43	43	4	-	4	9
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.545</b>	<b>43</b>	<b>1.588</b>	<b>1.475</b>	<b>1.248</b>	<b>227</b>	<b>93</b>

### AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	HASIER.		KOB./		AZKEN
	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA	
